

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AGURAINGO UDALA

Merkataritza eta ostalaritzako establezimenduek Aguraingo 2023ko "Kultur Bira-Circuito cultural" en parte hartzeko dirulaguntzak arautzeko oinarriak eta deialdia

Aguraingo Udalak, Tokiko Gobernu Batzarrak 2023ko urtarrilaren 18an egindako bilkuran, erabaki zuen onestea merkataritza eta ostalaritzako establezimenduek 2023ko "Kultur Bira-Circuito cultural" en parte hartzeko dirulaguntzak arautzeko oinarriak eta deialdia.

Aguraingo Udalaren xedea da dirulaguntzen bidez ekarpena egitea, udalerriko kultura sor-kuntza bultzatzeko, zentzurik zabalenean; halaber, garatzeko bideak jarri nahi dizkio edozein arlo artistikoko herriko bertako eta kanpoko kultura sortzaileen jarduerari, eta arreta berezia jarriko die formatu txikiko emanaldiei.

Gainera, ekimen horren helburuen artean dago kultura jardueretako gizarte partaidetza ahalbideratzea eta gure herriko gizarte bizitza eta jarduera ekonomikoa piztea, ustez udalerriko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu sarea, deialdi honen helburuen azken hartzaila izateaz gainera, faktore lagungarria izan daitekeela adierazi diren helburuak erdiesteko.

Horiek horrela, Udalak Aguraingo "Kultur bira-Circuito cultural" sortu eta garatzen lagunduko du, udalerriko denda eta establezimenduekin lankidetzan arituz, formatu txikiko gizarte eta kultura izaerako ekimenak garatzeko, nola merkataritza eta ostalaritzako gunetan, hala establezimendu horien ondoan dauden gune publikoetan, baita udalerriko beste gune publiko batzuetan ere.

1. Xedea

Oinarri hauen xedea da baldintzak arautzea udalak dirulaguntzak emateko 2023an kultura jarduerak antolatzen dituzten entitateei.

2. Onuradunak

Aguraingo udalerrian dauden merkataritza eta zerbitzu establezimendua. Eredu honen barruan daude Agurainen jendearentzat irekitako establezimendua daukaten ostalaritza, merkataritza eta zerbitzuak. Udalak deialdi hau zabalduko du horretarako gaitutako bitartekoekin, adierazitako establezimenduek deialdi honen berri izatea bermatzen saiatzeko.

Deialdi honetatik kanpo geratuko dira udalerriko establezimenduek proposatzen ez dituzten ekintzak, edo bestelako izaera edo entitate juridikoa duten erakundeek proposatzen dituztenak.

3. Jarduerak

Gizarte eta kultura jarduerak izango dira, formatu txikikoak, eta herritar guztientzakoak.

Udalak edo merkataritza sustatzeko zerbitzuak argituko du establezimenduek izan dezaketen edozein zalantza.

Interesa dutenek arduraren izango dute ekitaldiaren kontratazioa kudeatzeko eta hark eragindako gastu guztiak bere gain hartzeko, eta jarduera behar bezala egingo dela bermatuko dute.

Oinarri hauetan aipatzen den laguntza ekonomikoa emateak ez du esan nahi Aguraingo Udalaren eta erakunde onuradunaren arteko inolako kontratu harremanik dagoenik, ez arlo zibilekoa, ez lanekoa, ez administratiboa, ezta bestelakorik ere.

4. Balorazio irizpideak, Aguraingo "Kultur bira-Circuito cultural" egiteko

Udalak irizpide hauek izango ditu kontuan:

1. Diruz lagundutako jardueran euskara erabiltzea. Gehienez 3 puntu.
2. Herriko bertako taldeak edo pertsonak bultzatzea jardueretan. Gehienez 2 puntu.
3. Merkataritzako hainbat establezimenduk antolatzea jarduera. Gehienez 1,5 puntu.

Horrez gainera, jarduera horiek maiatzetik irailera arteko astebururen batean lau establezimenduk elkarlanean garatzen duten ziklo bat (4 jardueraz osatua) egiten badute, zikloari mila (1.000) euro arteko dirulaguntza eman ahal izango zaio.

4. Merkataritza establezimenduen ondoan dauden guneko publikoetan antolatzea jarduerak, batez ere maiatzetik irailera arteko aldietan. Gehienez 2 puntu.

5. Jada egin diren beste jarduera batzuen aldean originaltasuna dela eta nabarmentzen diren jarduerak sarituko dira, gehienez 0,75 punturekin.

6. Halaber, kontuan hartuko da zer diru ekarpen egiten duen entitate eskatzaileak (gastuaren zer ehuneko hartzen duen bere gain). Gehienez 0,75 puntu.

5. Metodologia

Aguraingo Udalak hilean 833,33 euroko partida dauka (10.000 euro urtean, 334.481.016 aurrekontu partidaren arabera). Kultura zirkuituaren programazioa, ahal dela, bi hileko tarteetan antolatuko da, eta programazio murriztagoa duten neguko hilabeteak multzokatu egingo dira:

- urtarrila-martxoa (epe horretan egindako eskaerak gauzatzeko epea martxoaren 17an amaituko da).

- apirila-maiatza.
- ekaina-uztaila.
- abuztua-iraila.
- urria-abendua.

Arau orokor gisa, eskaerak zikloa hasi aurreko hilaren 20a baino lehen aurkeztu behar dira. Ondorioz, apirila-maiatza eperako eskaerak martxoaren 17ra arte aurkeztu ahal izango dira, ekaina-uztaila eperakoak maiatzaren 19ra arte, abuztua-iraila eperakoak uztailaren 17ra arte, eta urria-abendua eperakoak irailaren 18ra arte.

Udala obligatzen da jasotako proposamenak eta horien ondorio diren programak baloratzera eskaerak aurkezteko epea bukatu eta 7 egun igaro baino lehen.

Instrukzio organoak (Kultura Zerbitzua) egingo du lehenengo balorazioa eta hark eskatuko ditu eskatu beharreko txostenak.

Udalak, gehienez ere, guztira egindako gastuaren % 80ko ekarpena egingo du eskatutako jardueretarako, eta ez ditu inola ere gaitutako jardueren ezaugarrien edo moten arabera ezartzen diren zenbateko hauek:

- Musika emanaldiak: 200 euro.
- Lantegiak, ikastaroak...: 150 euro.
- Erakustaldi edo erakusketak: 100 euro.
- Hitzaldiak: 150 euro.
- Beste batzuk. Gehienez: 200 euro.

Baldin eta epe bakoitzeko aurrekontua osorik gastatzen ez bada, sobera gelditzen den diru zenbatekoa hurrengo aldiko programazioei gehitu ahal izango zaie.

6. Komunikazioa eta propaganda

- Kultura zirkuituak Kultura Bira izena izango du.
- Karteletan udalaren logoa eta Kulturagurain ikurra agertu beharko dira. Jardueraren propaganda toki hauetan jarri beharko da gutxienez: sare sozialetan, merkataritza establezimenduaren web orrian, halakorik badauka, eta kultura zirkuituan borondatez parte hartzen duten establezimendu guztietan.
- Diruz lagundutako establezimenduak kartela aldez aurretik bidali beharko du Kultura Zerbitzura, udalaren webgunean zabaltzeko.

7. Onuradunen betebeharrak

1. Xedea betetzea eta eskatutako jarduera gauzatzea.
2. Aguraingo Udalari jarduera egin izana justifikatzea, memoria labur baten bidez, jardueraren argazki eta guzti.
3. Aguraingo Udalak eskatutako finantza eta gauzatze egiaztapen jardun guztiak egitea, eta eskatzen duen informazio guztia eranstea.
4. Aguraingo Udalari jardueraren balantze ekonomikoa jakinaraztea. Ikus 11. puntua.
5. Ekitaldian zehar egiaztagiriak gordetzea, kontrol jardueratarako aurkezteko eskatuz gero aurkezteko.
6. Aldaketarik bada proposatutako eta erakundeak diruz lagundutako jardueran, Aguraingo Udalari jakinaraztea.
7. Diruz lagundutako jarduera egiteko beharrezkoak diren baimen guztiak eta hura behar bezala gauzatzeko beharrezkoak diren aseguru eta baldintza guztiak lortzea.
8. Eskatzaileek egunean izan beharko dituzte zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.
9. Zinpeko aitortpena aurkeztea, adierazteko beste administrazio, erakunde edo organismo batzuek jarduera bera egiteko dirulaguntzarik eman dien ala ez.
- Baldintza horietakoren bat zati batean betetzen ez bada, dirulaguntza gutxitu edo ukatu egin ahal izango da.
10. Zerbitzu teknikoek edo organo kudeatzaileak automatikoki egiaztatuko dute eskatzaileek zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela, bai eta haien nortasuna ere (nortasun agiri nazionala/identifikazio fiskaleko zenbakia). Hala ere, erakunde eskatzaileak berriaz egin diezaioke uko egiaztapen horri, eta, hala egiten badu, adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko du. Gainera, bat etorri Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikulua 2. paragrafoan xedatutakoarekin, dirulaguntzaren eskaera aurkezteak berekin dakar eskatzaileak baimena ematea Aguraingo Udalari zuzenean eskura dezan beste edozein administrazio publikok egindako dokumentazio guztia.
11. Eskatzaileak administrazio honetan edo beste edozein administrazio publikotan aurkeztu badu eskatutako dokumentazioa, eta espresuki adierazten badu ez dela egin aldaketarik, ez du aurkeztu beharko dokumentazio hori, bat etorri urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikulua 3. paragrafoan xedatutakoarekin. Hala ere, dokumentu horiek noiz eta zer administrazio organotan aurkeztu dituen adierazi beharko du. Eskabidea aurkezteak berekin dakar baimena ematea organo kudeatzaileari dokumentazio hori eskura dezan, baina horrek ez du esan nahi baimena berriaz ukatu ezin denik. Kasu horretan, adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko da.
12. Diruz lagundutako programak, proiektuak edo jarduerak sustatzeko egiten diren kartel eta testuen edukietan hizkuntza eta irudi sexistarik ez erabiltzea. Emakumeen irudi diskriminatzaile oro ekiditea, eta ondoko balio hauek dituen irudi bat sustatzea: berdintasuna, presentzia orekatua, aniztasuna, erantzukidetasuna eta rol eta genero-identitate pluraltasuna.
13. Diruz lagundutako programa, proiektu edo jardueretan genero ikuspegia sartzea sustatu beharko du.

8. Eskaerak, agiriak eta aurkezteko epea

Establezimendu bakoitzak astean jarduera bat aurkeztu ahal izango du gehienez 5. puntuan deskribatutako hileko tarte bakoitzean.

Eskaerak horretarako eskaera orria/formularioa betez egingo dira, 5. puntuan zehaztutako epeetan. Udal erregistroaren bitartez (bertatik bertara) edo helbide elektronikoen bidez aurkeztu ahal izango dira: kultura@agurain.com.

9. Prozeduraren instrukzioa

Eskatutako agiriak aurkeztu ondoren, kultura arloak aztertu egingo ditu jasotako eskabideak eta egindako txostenak. Ezarritako irizpideen eta aurkeztutako eskaera kopuruaren arabera hautatuz emango dira dirulaguntzak. Instrukzio organoak baloratu ondoren, zeina kultur arloko teknikariak eta zinegotzi arduradunak osatzen baitute, organo eskudunak ebatziko du.

10. Jakinarazpena

Organo eskudunak hartutako ebazpena behar bezala jakinaraziko zaie laguntzak eskatu dituztenei.

11. Justifikazioa eta epea

Zenbatekoak honako agiri hauen bidez justifikatu ondoren ordainduko dira:

- Ereduaren/formularioaren arabera jardueraren memoria laburra, argazkiak erantsita.
- Egin diren kartelen eta propagandaren kopia.
- Jarduera emateko aldiko data duten jatorrizko fakturak. Faktura horiek hauek jaso beharko dituzte: jasotzailearen nortasun agiri nazionalaren edo lizentzia fiskalaren zenbakia, etxe hornitzailearen zigilua edo sinadura eta, BEZa ordaintzetik salbuetsita egonez gero, hori egiaztatzen duten agiriak.
- Jardueraren ondorioz izan diren diru sarreren aitortpena (matrikulak, babesleak, publizitatea...).
- Artista batek hainbat ekitalditan parte hartu badu, haiek banan-banan justifikatu beharko dira (jarduera bakoitza bere memoriarekin eta fakturekin).

Justifikatutako diru kopurua eskaeran adierazitako aurrekontua baino gutxiago bada, udalak dagokion diru kopurua kenduko dio emandako laguntzari.

Egindako jarduerak, gehienez ere, jarduera egin eta bi hilabetera justifikatu beharko dira agiri bidez, azken denbora tartekoak izan ezik; horiek uneko urteko abenduaren 15a baino lehen justifikatu beharko baitira. Gastua zurtzen duten agiriak bertatik bertara, udal erregistroan, edo eskaneatuta, email bidez (kultura@agurain.com), aurkeztu beharko dira, nahiz eta gerora berriro eskatu ahal izango diren.

12. Kultur Birarako diru kopurua

Deialdi hau gauzatzeko, gehienez, 10.000 euro bideratuko dira, 334.481.016 "Circuito cultural/ Kultur Bira" partidaren kontura.

13. Araubide juridikoa

Oinarri hauetan aipatzen ez diren kontuetan, arau hauek aplikatuko dira: Aguraingo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen udal ordenantza; Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; 887/2006 Errege Dekretua, aurreko lege hori garatzen duen araudia onesten duena, eta, orobat, aplikatzekoak diren gainerakoak.

Agurain, 2023ko urtarrilaren 25a

Alkatea

ERNESTO SAINZ LANCHARES